Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2024ko maiatzaren 7a, asteartea — 87 — Martes, a 7 de mayo de 2024

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK — 1 — DISPOSICIONES GENERALES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

*187/2024 Foru Agindua, apirilaren 26koa, zeinaren bidez «Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zerga. Autolikidazioa» izena duen 587 eredu berria onesten baita, hura aurkezteko eta zergaren itzulketa eskatzeko modua eta prozedura zehazten baitira, eta berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergaren erregistroan inskribatzea eta izakinen kontabilitatea eramatea arautzen baitira.*

Abenduaren 5eko 564/2022 Foru Aginduaren bidez onetsita geratu zen «Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zerga. Autolikidazioa» izena duen 587 eredua, hura aurkezteko eta zergaren itzulketa eskatzeko modua eta prozedura zehaztu ziren, baita berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergaren erregistroan inskribatzea eta izakinen kontabilitatea eramatea arautu ere.

Agindu hori onetsi eta behin indarrean jarri ondoren, onespena eman zitzaion Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergari buruzko uztailaren 26ko 12/2023 Foru Dekretu Arauemaileari, zeinaren bidez foru araudira ekarri baita zerga horren erregulazioa, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunak, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsiak, 34. artikuluan xedatutakoarekin bat. Erregulazio hori gure araudira ekartzeko, aintzat hartu zen uztailaren 8ko 14/2022 Legearen bidez aldatutako urriaren 29ko 16/2013 Legeak 5. artikuluan jasotakoa (16/2013 Legea, ingurumen fiskalitatearen arloan zenbait neurri ezarri eta beste tributu eta finantza neurri batzuk onesten dituena).

Kontuan hartuta 564/2022 Foru Agindu horrek uztailaren 8ko 14/2022 Legearen bidez aldatutako urriaren 29ko 16/2013 Legeari egiten diola erreferentzia, beharrezkoa da aginduan egiten diren igorpenak eguneratzea Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergari buruzko uztailaren 26ko 12/2023 Foru Dekretu Arauemailera eraman dezaten.

Bestalde, 2024ko otsailaren 20an argitara eman da Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024ko otsailaren 7ko 2024/573 (EB) Erregelamendua, berotegi efektuko gas fluordunei buruzkoa, 2019/1937 (EB) Zuzentaraua aldatu eta 517/2014 (EB) Erregelamendua indargabetzen duena.

564/2022 Foru Aginduak indargabetu den erregelamendura ere igortzen duenez, komeni da igorpen hori indarrean dagoen Europako araudira ere egitea.

Gainerakoan, 564/2022 Foru Aginduaren edukiak ez du aldaketa garrantzitsurik, 2024/573 (EB) Erregelamendu berritik eratorritakoak izan ezik, zergaren eremu objektiboari eta zerga tasari eragiten dietenak hain zuzen. Aldaketa horiek I. eranskinean jasotzen dira.

Horrenbestez, hau

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

*Orden Foral 187/2024, de 26 de abril, por la que se aprueba el nuevo modelo 587 –Impuesto sobre los gases fluorados de efecto invernadero. Autoliquidación– se determina la forma y procedimientos de su presentación, así como la forma y procedimiento para la solicitud de devolución del impuesto y se regulan la inscripción en el registro del impuesto sobre los gases fluorados de efecto invernadero y la llevanza de la contabilidad de existencias.*

Por Orden Foral 564/2022, de 5 de diciembre, se aprobó el modelo 587 –Impuesto sobre los gases fluorados de efecto invernadero. Autoliquidación– se determina la forma y procedimientos de su presentación, así como la forma y procedimiento para la solicitud de devolución del impuesto y se regulan la inscripción en el registro del impuesto sobre los gases fluorados de efecto invernadero y la llevanza de la contabilidad de existencias.

Con posterioridad a su aprobación y entrada en vigor se aprobó el Decreto Foral Normativo 12/2023, de 26 de julio, del Impuesto sobre los gases fluorados de efecto invernadero, que recoge la regulación foralizada del citado impuesto de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 34 del Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado por la Ley 12/2002, de 23 de mayo. Dicha foralización se realizó tomando en consideración el contenido del artículo 5 de la Ley 16/2013, de 29 de octubre, por la que se establecen determinadas medidas en materia de fiscalidad medioambiental y se adoptan otras medidas tributarias y financieras, modificada por la Ley 14/2022, de 8 de julio.

Teniendo en cuenta que la mencionada Orden Foral 564/2022 hace referencia a la Ley 16/2013, de 29 de octubre, modificada por la Ley 14/2022, de 8 de julio, procede actualizar dichas remisiones y centrarlas en el Decreto Foral Normativo 12/2023, de 26 de julio, del Impuesto sobre los gases fluorados de efecto invernadero.

Por otra parte, el 20 de febrero de 2024 se publicó en el Diario Oficial de la Unión Europea el Reglamento (UE) 2024/573 del Parlamento Europeo y del Consejo de 7 de febrero de 2024, sobre los gases fluorados de efecto invernadero, por el que se modifica la Directiva (UE) 2019/1937, y se deroga el Reglamento (UE) n.º 517/2014.

Teniendo en cuanta que la Orden Foral 564/2022 hace remisión al reglamento derogado, procede también actualizar dicha remisión a la normativa europea vigente.

Por lo demás, el contenido de la Orden Foral 564/2022 no sufre modificaciones sustanciales, salvo las derivadas del nuevo Reglamento (UE) 2024/573 que afectan al ámbito objetivo y al tipo impositivo del impuesto, y se recogen en su anexo I.

En su virtud,

EK\CV GAO-I-2024-03085

XEDATZEN DUT

*1. artikulua. 587 eredua onestea.*

Onetsita geratzen da 587 eredua, «Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zerga. Autolikidazioa» izenekoa, foru agindu honetan 1. eranskin gisa jasotzen dena.

*2. artikulua. 587 eredua aurkeztera behartuak eta epeak.*

1. Zergaren xede diren gasak fabrikatzen edo Europar Batasunaren barruan eskuratzen dituztenek eta gas fluordunen biltegizain direnek aurkeztu behar dute 587 eredua, baita eredutik ondorioztatzen den zerga zorraren zenbatekoa ordaindu ere. Inportazioetan, aduana zorrerako aurreikusita dagoen moduan likidatuko da zerga, aduana araudian xedatutakoaren arabera.

2. Aurreko apartatuan xedatutako betebeharretik salbuetsita daude zergaren xede diren gasak Batasunaren barruan eskuratzen dituztenak, ordaindu beharreko kuotarik ateratzen ez den likidazio aldietan.

3. 587 ereduaren aurkezpena eta, hala badagokio, zerga zorraren ordainketa likidazio aldia amaitu ondorengo hilaren 1etik 25era bitartean egingo dira. Ondorio horietarako, likidazio aldia hiruhileko naturalarekin bat etorriko da. Hala ere, urte bakoitzeko azken hiruhilekoari dagokion eredua aurkeztu eta, hala badagokio, ordaintzeko epea hurrengo urteko urtarrilaren 31n amaituko da.

4. Uztailaren 26ko 12/2023 Foru Dekretu Arauemailearen 15. artikuluko 3. apartatuan aurreikusi bezala, zergadunek aplikatutako kenkarien zenbatekoek urte naturaleko azken likidazio aldian sortutako kuoten zenbatekoa gainditzen badute, beren alde duten saldoaren itzulketa eskatu ahal izango dute likidazio aldi horri dagokion 587 eredua aurkeztuz.

*3. artikulua. Ordaindutako zergaren zenbatekoaren itzulketa eskatzeko ahalmendunak eta epeak.*

1. Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergari buruzko uztailaren 26ko 12/2023 Foru Dekretu Arauemailearen 15. artikuluko 1. apartatuan aipatzen diren inportatzaileek eta eskuratzaileek ordaindutako zergaren zenbatekoa itzultzeko eskatu dezakete.

2. Zenbatekoa itzultzeko eskaera hurrengo artikuluan aipatzen den Zergabidea plataformako idazkien atalaren bidez egin beharko da, eta beharrezkoa izango da frogatzea Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergari buruzko uztailaren 26ko 12/2023 Foru Dekretu Arauemailearen 15. artikuluko 1. apartatuan deskribatutako gertaerak izan direla eta itzultzeko eskatzen den zerga ordainduta dagoela.

3. Itzultzeko eskaera aurkeztu beharko da hura eragin duten gertaerak izan diren hiruhilekoa amaitu ondorengo hilaren 1etik 25era bitartean. Hala ere, urte bakoitzeko azken hiruhilekoari dagokion eskaera aurkezteko epea hurrengo urteko urtarrilaren 31n amaituko da.

*4. artikulua. 587 eredua eta ordaindutako zergaren zenbatekoa itzultzeko eskaera aurkezteko modua, baldintza orokorrak eta prozedura.*

1. 587 eredua eta ordaindutako zergaren zenbatekoa itzultzeko eskaera internet bidez aurkeztu beharko dira beti, Zergabidea plataformatik, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Administrazioarekiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzeko obligazioa arautzen duen ekainaren 28ko 320/2017 Foru Aginduari jarraituz. Aurkeztu beharreko eredua prestatzeko, Zergabidea plataformak berak eskatutako datuak bete beharko dira.

DISPONGO

*Artículo 1.º Aprobación del modelo 587.*

Se aprueba el modelo 587 «Impuesto sobre los Gases Fluorados de Efecto Invernadero. Autoliquidación», que figura en el anexo I de la presente orden foral.

*Artículo 2.º Obligados y plazos para la presentación del modelo 587.*

1.º Quienes fabriquen o quienes realicen la adquisición intracomunitaria de gases objeto del impuesto y los almacenistas de gases fluorados están obligados a la presentación del modelo 587 y a ingresar el importe de la deuda tributaria resultante del mismo. En las importaciones, el impuesto se liquidará en la forma prevista para la deuda aduanera, según lo dispuesto en la normativa aduanera.

2.º Quedan exceptuados de la obligación dispuesta en el apartado anterior quienes realicen la adquisición intracomunitaria de gases objeto del impuesto en aquellos periodos de liquidación en los que no resulte cuota a ingresar.

3.º La presentación del modelo 587 y, en su caso, el pago de la deuda tributaria se efectuará entre los días 1 y 25 del mes siguiente a la finalización del período de liquidación. A estos efectos, el periodo de liquidación coincidirá con el trimestre natural. No obstante, el vencimiento del plazo de presentación y, en su caso de pago, del último trimestre de cada año finalizará el 31 de enero del año siguiente.

4.º Los contribuyentes cuyas cuantías de deducción superen el importe de las cuotas devengadas en el último período de liquidación del año natural, de conformidad con lo previsto en el apartado 3 del artículo 15 del Decreto Foral Normativo 12/2023, de 26 de julio, del Impuesto sobre los gases fluorados de efecto invernadero, podrán solicitar la devolución del saldo existente a su favor mediante la presentación del modelo 587 correspondiente a dicho periodo de liquidación.

*Artículo 3.º Facultados y plazos para la solicitud de devolución del importe del impuesto pagado.*

1.º Los importadores y los adquirentes a que se refiere el apartado 1 del artículo 15 del Decreto Foral Normativo 12/2023, de 26 de julio, del Impuesto sobre los gases fluorados de efecto invernadero, podrán solicitar la devolución del importe del impuesto pagado.

2.º La solicitud de devolución deberá realizarse a través de la sección de escritos de la plataforma Zergabidea a la que se hará mención en el artículo siguiente, acompañando los justificantes que acrediten la existencia de los hechos descritos en el apartado 1 del artículo 15 del Decreto Foral Normativo 12/2023, de 26 de julio, del Impuesto sobre los gases fluorados de efecto invernadero, y el pago del impuesto cuya devolución se solicita.

3.º La solicitud se efectuará entre los días 1 y 25 del mes siguiente a aquel en que finalice el trimestre en que se produzcan los mencionados hechos que motivan la solicitud de devolución. No obstante, el vencimiento del plazo de presentación de la solicitud del último trimestre de cada año finalizará el 31 de enero del año siguiente.

*Artículo 4.º Forma, condiciones generales y procedimiento para la presentación del modelo 587 y la solicitud de devolución del importe del impuesto pagado.*

1. El modelo 587 y la solicitud de devolución del importe del impuesto pagado se presentarán de forma obligatoria por vía electrónica a través de Internet desde la plataforma Zergabidea, con arreglo a lo previsto en Orden Foral 320/2017, de 28 de junio, por la que se regula la obligación de relacionarse con la Administración tributaria foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa por medios electrónicos. El modelo a presentar se confeccionará cumplimentando los datos requeridos al efecto por la propia plataforma Zergabidea.

Zergabidea plataforma https://Zergabidea.gipuzkoa.eus atarian dago eskuragarri. Era berean, nahi duena Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikotik edo Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgune ofizialetik ere sartu ahal izango da plataforma horretara.

2. 587 eredua aurkeztu eta, hala badagokio, zerga zorra ordaintzeko obligazioa zergapekoek jarduera garatzeko erabiltzen duten establezimendu bakoitzeko bete beharko da.

Batasunaren barruko eskuratzaileen kasuan, 587 eredua aurkezteko eta, hala badagokio, zerga zorra ordaintzeko obligazioa Zerga Administrazio honetan bete beharko da, zerga egoitza lurralde honetan dagoenean.

*5. artikulua. Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergaren erregistroan inskribatzea.*

1. Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergaren zergadunek eta zergaren aplikazio lurraldean finkatuta ez dauden zergadunen ordezkariek, zerga horrekin dituzten betebeharrei dagokienez Zerga Administrazioaren aurrean ordezka ditzaten izendatuek, berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergaren erregistroan inskribatzeko eskatu beharko dute abuztuaren 30eko 712/2022 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergaren Erregelamenduan ezarritako moduan.

2. Inportatzaileak aurreko apartatuan xedatutako inskripzio betebeharretik salbuetsita geratzen dira haiek ez badira operadore ekonomikoak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren urriaren 9ko 952/2013/EB Erregelamenduaren 55 artikuluko 5. zenbakian definitzen den eran. Erregelamendu horren bidez Batasuneko Aduana Kodea ezarri zen.

3. Oro har, aurreko apartatuetan ezarritakoaren arabera lurralde erregistroan inskribatzera behartuta dauden pertsonek edo entitateek alta emanda egon beharko dute enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen erroldan, garatu beharreko jarduerari dagokion epigrafean, eta eskaera bat aurkeztu beharko dute Ogasun eta Finantza Departamentuan, bertan datu hauek jasota:

a) Eskatzailearen izen-deiturak edo sozietate izena, zerga helbidea eta identifikazio fiskaleko zenbakia, baita ordezkariarenak ere, halakorik bada, ordezkaritza hori frogatzen duen dokumentazioarekin batera.

b) Non dagoen kokatua jarduera egiteko erabiltzen duen establezimendua, helbidea (partzela zenbakia, halakorik bada) eta herria adierazita, eta instalazioak edozein tituluren bidez edukitzeko eskubidearen ziurtagiria erantsita.

Inskripzio eskaerarekin batera, honako hauek aurkeztu beharko dira:

a) Zerga honen xede diren produktuekin lotutako gaitasuna frogatzen duen dokumentazioa, hala eskatzen den kasuetan.

b) Gas fluordunen biltegizainen kasuan, zergaren xede diren gasak Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergari buruzko uztailaren 26ko 12/2023 Foru Dekretu Arauemailearen 9. artikuluaren 4. apartatuko araubidea aplikatuta eskuratzeko Zerga Administrazioak edo kudeaketa bulegoak emandako baimena.

c) Inportatzaileen kasuan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024ko otsailaren 7ko 2024/573 (EB) Erregelamenduari jarraituta zenbait kasutan beharrezkoa izan dezaketen aldez aurreko F-GAS baimena –2024/573 (EB) Erregelamendua, 2019/1937 (EB) Zuzentaraua aldatu eta 517/2014 (EB) Erregelamendua indargabetzen duena–.

4. Erregistroan inskribatzeko eskaera jarduera hasi aurretik egin beharko da, bide elektronikoz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa erabilita.

La plataforma Zergabidea se encuentra disponible en el portal https://Zergabidea.gipuzkoa.eus. Se podrá, así mismo, acceder a dicha plataforma desde la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa o desde la página web oficial del Departamento de Hacienda y Finanzas.

2. La obligación de presentar el modelo 587 y, en su caso, de efectuar el pago de la deuda tributaria deberá cumplirse por cada uno de los establecimientos en que los obligados desarrollen su actividad.

En el caso de los adquirentes intracomunitarios, la obligación de presentar el modelo 587 y, en su caso, de efectuar el pago de la deuda tributaria deberá cumplirse ante esta Administración tributaria cuando en este territorio radique su domicilio fiscal.

*Artículo 5.º Inscripción en el registro del impuesto sobre los gases fluorados de efecto invernadero.*

1.º En los términos previstos en el Reglamento del Impuesto sobre los Gases Fluorados de Efecto Invernadero, aprobado por el Real Decreto 712/2022, de 30 de agosto, deberán solicitar la inscripción en el registro del impuesto sobre los gases fluorados de efecto invernadero los contribuyentes y los representantes de los contribuyentes no establecidos en el territorio de aplicación del impuesto, nombrados para que les representen ante la Administración tributaria en relación con sus obligaciones con este impuesto.

2.º Quedan exceptuados de la obligación de inscripción dispuesta en el apartado anterior los importadores que no sean operadores económicos conforme a la definición prevista en el número 5 del artículo 5 del Reglamento (UE) n.º 952/2013 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 9 de octubre de 2013, por el que se establece el Código aduanero de la Unión.

3.º Con carácter general, las personas o entidades que resulten obligadas a inscribirse en el registro conforme a los apartados anteriores deberán figurar de alta en el censo de empresarios, profesionales y retenedores en el epígrafe correspondiente a la actividad a desarrollar y presentarán ante el Departamento de Hacienda y Finanzas una solicitud en la que conste:

a) El nombre y apellidos o razón social, domicilio fiscal y número de identificación fiscal del solicitante, así como, en su caso, del representante, que deberá acompañar la documentación que acredite su representación.

b) El lugar en que, en su caso, se encuentre situado el establecimiento donde ejerza su actividad con expresión de su dirección, en su caso, número de parcela, localidad y la acreditación del derecho a disponer de las instalaciones por cualquier título.

La referida solicitud de inscripción deberá acompañarse de:

a) En caso de que resulte exigible, la documentación acreditativa de su capacitación con relación a los productos objeto de este impuesto.

b) En el caso de los almacenistas de gases fluorados, la correspondiente autorización de la Administración tributaria o de la oficina gestora para adquirir los gases objeto del impuesto con aplicación del régimen del apartado 4 del artículo 9 del Decreto Foral Normativo 12/2023, de 26 de julio, del Impuesto sobre los gases fluorados de efecto invernadero.

c) En el caso de los importadores, la previa autorización F-GAS para los supuestos en los que al importador le resulte exigible conforme a lo dispuesto en el Reglamento (UE) 2024/573 del Parlamento Europeo y del Consejo de 7 de febrero de 2024, sobre los gases fluorados de efecto invernadero, por el que se modifica la Directiva (UE) 2019/1937, y se deroga el Reglamento (UE) n.º 517/2014.

4.º La solicitud de inscripción en el registro deberá efectuarse por vía electrónica con carácter previo al inicio de la actividad, a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

EK\CV GAO-I-2024-03085

5. Eskaera jaso eta dagokion espedientea izapidetu ondoren, Zerga Administrazioak zergaren erregistroan inskripzioa egitea erabakiko du, hala badagokio.

Inskribatzeko erabakia interesdunari jakinaraziko zaio eta, harekin batera, inskripzioa egiaztatzen duen txartela igorriko zaio, gas fluordunen identifikazio kodea (GFJ kodea) barruan dela.

*6. artikulua. Berotegi efektuko gas fluordunak identifikatzeko kodea.*

1. Berotegi efektuko gas fluordunen identifikazio kodea (GFJ) berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergaren erregistroan inskribatutako zergapekoak identifikatzen dituen kodea da.

2. Kodeak 13 karaktere izango ditu, erregelamenduz xedatutako eran banatuta.

3. Zergapekoek jarduerak adina GFJ kode izan behar dituzte, baita jarduera garatzeko erabiltzen dituzten establezimenduak adina GFJ kode ere. Salbuetsita daude inportatzaileak eta batasun barruko gas eskurapenak egiten dituztenak, haiek GFJ kode bakarra izan beharko baitute jarduera bakoitzeko.

4. Zergadunek lurraldea dela eta eskudun den Zerga Administrazioan eskatu beharko dute erregistroan inskribatzea, baita kasuan kasuko likidazioa bertan aurkeztu ere, hala badagokio.

5. Erregelamenduz aurreikusitako baldintzetan, honako hauek izango dira lurralde erregistroan inskribatutako pertsonak edo entitateak garatzen duen jardueraren identifikazio ezaugarriak:

G1: Gas fluordunen fabrikatzailea.

G2: Gas fluordunen batasun barruko eskuratzailea.

G3: Gas fluordunen inportatzailea.

G4: Gas fluordunen biltegizaina.

G5: Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergaren zergadunaren ordezkaria (Espainiako lurraldean finkatu gabearena).

*7. artikulua. Kontabilitate betebeharrak.*

1. Zergaren xede diren gasak fabrikatzen dituztenek edo Europar Batasunaren barnean eskuratzen dituztenek, bai eta gas fluordunak biltegiratzen dituztenek ere, zergaren xede diren produktuen kontabilitatea eraman beharko dute, foru agindu honen II. eranskinean jasotako formatuari jarraituz.

2. Zergaren xede diren gasen batasun barruko eskurapenak egiten dituztenak salbuetsita geratzen dira kontabilitatea eramateko obligaziotik baldin eta batasun barruko eskurapenak ez egiteagatik likidazio aldi horietan ordaindu beharreko kuotarik ondorioztatzen ez bada.

3. Fabrikatzaileek, batasun barruko eskuratzaileek eta biltegizainek dagokion likidazio aldiaren ondorengo hilabetearen 1etik 25era bitartean aurkeztu beharko dute kontabilitatea, eta, horretarako, elektronikoki emango dute informazioa, aurreko 4. artikuluan aipatutako Zergabidea plataformaren idazkien ataletik abiatuta. Hala ere, urte bakoitzeko azken hiruhilekoari dagokion kontabilitatea aurkezteko epea hurrengo urteko urtarrilaren 31n amaituko da.

4. Inportatzaileak artikulu honetan xedatutako kontabilitate betebeharretatik salbuetsita daude.

*Xedapen indargabetzailea.*

Indarrik gabe geratzen dira foru agindu honetan xedatutakoarekin bat ez datozen xedapen guztiak eta, bereziki, 564/2022 Foru Agindua, abenduaren 5ekoa, «Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zerga. Autolikidazioa» izeneko 587 eredua onetsi, hura aurkezteko eta zergaren itzulketa eskatzeko modua eta prozedurak ezarri, eta berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergaren erregistroan inskribatzea eta izakinen kontabilitatea eramatea arautzen duena.

5.º Recibida la solicitud, y tramitado el oportuno expediente, la Administración tributaria, acordará, si procede, la inscripción en el registro del impuesto.

El acuerdo de inscripción será notificado al interesado, junto con la tarjeta acreditativa de la inscripción que incluirá el código de identificación de gases fluorados (CAF) que le corresponde.

*Artículo 6.º Código de identificación de los gases fluorados de efecto invernadero.*

1.º El código de identificación de los gases fluorados de efecto invernadero (CAF) es el código que identifica a los obligados inscritos en el registro del impuesto sobre los gases fluorados de efecto invernadero.

2.º El código constará de 13 caracteres distribuidos, conforme a lo dispuesto reglamentariamente.

3.º Los obligados tributarios deberán obtener tantos CAF como actividades y tantos CAF como establecimientos en los que desarrollen su actividad. Quedan exceptuados, los importadores y quienes realicen adquisiciones intracomunitarias de gases objeto del impuesto que solo deberán tener un CAF por actividad.

4.º Los contribuyentes deberán solicitar la inscripción en el registro y presentar, en su caso, la correspondiente autoliquidación ante la Administración tributaria competente por razón del territorio.

5. En los términos previstos reglamentariamente, los caracteres identificativos de la actividad que desarrolla la persona o entidad inscrita en el registro territorial son los siguientes:

G1: Fabricante de gases fluorados.

G2: Adquirente intracomunitario de gases fluorados.

G3: Importador de gases fluorados.

G4: Almacenista de gases fluorados.

G5: Representante de contribuyente del Impuesto sobre los gases fluorados de efecto invernadero no establecido en territorio español.

*Artículo 7.º Obligaciones contables.*

1.º Quienes fabriquen o quienes realicen adquisiciones intracomunitarias de gases objeto del impuesto, así como los almacenistas de gases fluorados, están obligados a la llevanza de contabilidad de los productos objeto del impuesto conforme al formato que figura en el anexo II de la presente orden foral.

2.º Quienes realicen adquisiciones intracomunitarias de gases objeto del impuesto quedan exceptuados de llevar contabilidad en aquellos periodos de liquidación en los que no resulte cuota a ingresar por no realizar adquisiciones intracomunitarias.

3.º La presentación de la contabilidad por los fabricantes, los adquirentes intracomunitarios y los almacenistas deberá efectuarse entre los días 1 y 25 del mes siguiente al periodo de liquidación al que se refiera, mediante su suministro electrónico a través de la sección de escritos de la plataforma Zergabidea a la que se hace mención en el artículo 4 anterior. No obstante, el vencimiento del plazo de presentación del último trimestre de cada año, finalizará el 31 de enero del año siguiente.

4.º Quedan exceptuados de las obligaciones contables dispuestas en este artículo los importadores.

*Disposición derogatoria.*

Quedan derogadas cuantas disposiciones se opongan a lo dispuesto en la presente orden foral y, en particular, la Orden Foral 564/2022, de 5 de diciembre, por la que se aprueba el modelo 587 –Impuesto sobre los gases fluorados de efecto invernadero. Autoliquidación– se determina la forma y procedimientos de su presentación, así como la forma y procedimiento para la solicitud de devolución del impuesto y se regulan la inscripción en el registro del impuesto sobre los gases fluorados de efecto invernadero y la llevanza de la contabilidad de existencias.

EK\CV GAO-I-2024-03085

*Azken xedapena.*

Foru agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2024ko apirilaren 26a.—Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua. (3085)

*Disposición final.*

La presente orden foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 26 de abril de 2024.—El diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas. (3085)

EK\CV GAO-I-2024-03085

I.A ERANSKINA | ANEXO I.A

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua
Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Hacienda y Finanzas

www.gipuzkoa.eus/ogasuna

*8400055872022*

# BEROTEGI EFEKTUKO GAS FLUORDUNEN GAINEKO ZERGA
# IMPUESTO SOBRE LOS GASES FLUORADOS DE EFECTO INVERNADERO
**Autolikidazioa**
Autoliquidación

**587**

Organismo kodea
Código de Organismo: **75 03 6**

## (1) Identifikazioa / Identificación

**IFZ** / NIF

**GFJ** / CAF

**Ekitaldia** / Ejercicio

**Zergaldia** / Período

**Deiturak eta izena, edo sozietate izena** / Apellidos y nombre o razón social

## (2) Likidazioa / Liquidación

